

# ZEIN DA ZURE BIZITZA HELBURUA?



Ikasleak: Ane Mateo, Idoia Gabikagoxeaskoa eta Unai Belasko.

Irakaslea: Blanca Garcia

Kategoria: DBHko 1.a eta 2.a

Zentroa: IES Aixerrota

Ikasturtea: 2020/21

# LABURPENA

Egindako proiektuarekin jakin nahi izan dugu zein zen gazteek edo ikasleek zuten etorkizuna haien buruan. Horretarako inkesta bat egin dugu Google Forms-en bidez, eta institutuko ikasle guztiei bidali diegu. Ikasle askok erantzun digute eta haien erantzunak oso baliagarriak izan zaizkigu.

Lortu ditugun erantzunak 12 eta 18 urteren arteko ikaslerenak izan dira. Galdetegiak emandako erantzunak Google kalkulu orriaren bitartez tratatu ditugu, galdera bakoitzean taula batean maiztasunak adieraziz eta grafiko bat eginez. Informazio horretatik atera ditugu ondorioak. Azkenik, proiektu luze honetan txarto egin ditugun gauza guztiak idatzi ditugu eta hauek ekiditeko hobekuntzak adierazi ditugu hurrengo proiektuan hobeto egiteko.

# AURKIBIDEA

- Sarrera eta helburuak
- Material eta metodoak
- Datuen tratamendua
- Ondorioak
- Hobekuntzak

# SARRERA ETA HELBURUAK

Gaur egun, gertatzen ari diren aldaketekin, ezinbestekoa da etorkizunean pentsatzen hastea. Horregatik, Aixerrota BHI Ikastetxeko ikasleei galdetu nahi izan diegu haien bizitza helburuei buruz, oraingo belaunaldiak buruan zer ideia dituzten ikusteko eta haien helburuak ikertzeko, baita konparatzeko ere.

Horretarako, ikerketa hau zabaldu dugu, non beste datu askoren artean, helburuei buruz, ikasketei buruz, eta ikasketa hauen funtzionalitateari buruz ( haien etorkizunera begira ) galdetzen dugun, dena inkesta baten bidez.

Beraz, esan daiteke lan estatistiko honen helburu nagusia, gure ikastetxeko ikasleen bizitza helburuak ikustea izan dela. Ea institutua utzi orduan, zer ikasi nahi duten hemengo ikasleek, ea pentsatuta duten, edo bestetik unibertsitatea amaitu ostean, zer lanbide ikasi edo hartu nahi duten.

Gero eta gazte gehiagok, ikasketak uzten dituzte edo ez dute lanbiderik izaten. Orduan guk jakin nahi dugu, ze egingo duten ikasleek edo ze gaztek ikasten jarraituko duen.

# MATERIAL ETA METODOAK

Landuko ditugun datu hauek guk egindako inkesta batetik lortu ditugu, Google Forms erabiliz sortu duguna. Diseinatu ondoren, institutuko ikasleei bidali diegu, haien erantzunak lortzeko.



Bitza helburuak aztertzeko, ikertu nahi genuen populazioa gure institutuko ikasleak ziren (12-18 ureteren artekoak). Lagina ateratzeko institutuko ikasle guztiei bidali diegu. Ikasle guztiek ezin izan digutenez inkesta bidali, galdetegia erantzun dutenez egongo da osatuta lagina.

Erantzunak analizatzeko orduan, Google-ko kalkulu orriak eta honek aurkezten dituen tresna guztiak erabili ditugu. Casio emuladorea ere erabili dugu kaxa diagramak egiteko.

# DATUEN ANALISIA

## 1. LAGINAREN EZAUGARRIAK: ADINA ETA GENEROA

Hurrengo grafikoa ikusi ahal denez, adin guztietako erantzunak lortu ditugu, baina batez ere 13 urtekoenak, %41,44rekin (moda da).




Kaxa diagramatik ateratzen dena da erantzunen %75 12-14 urteko ikasleenak direla, hau da 1.ziklokoenak.

15, 16, 17 eta 18 urteko ikasleen erantzun gutxi lortu ditugu, bakoitzak, % 5 baino gutxiago osatzen dutenak.

| xi             | fi         | hi          | Fi         | Hi          |
|----------------|------------|-------------|------------|-------------|
| 12             | 20         | 18,92%      | 21         | 18,92%      |
| 13             | 46         | 41,44%      | 67         | 60,36%      |
| 14             | 25         | 22,52%      | 92         | 82,88%      |
| 15             | 5          | 4,50%       | 97         | 87,38%      |
| 16             | 4          | 3,60%       | 101        | 90,98%      |
| 17             | 4          | 3,60%       | 105        | 94,58%      |
| 18             | 6          | 5,41%       | 111        | 99,99%      |
| <b>Guztira</b> | <b>110</b> | <b>100%</b> | <b>111</b> | <b>100%</b> |

## How do you identify yourself?



Generoari dagokionez, eta aurreko grafikoan ikusten den bezala, %50, hau da erdiak neskak dira eta pixka bat beherago, %40 baino pixka bat gehiago, mutilak dira.


| xi               | fi  | hi     |
|------------------|-----|--------|
| Neska            | 55  | 50%    |
| Mutila           | 46  | 41,81% |
| Ez bitarra       | 3   | 2,72%  |
| Nahiago dut ez.. | 5   | 4,54%  |
| Beste bat        | 1   | 0,90%  |
| Guztira          | 110 | 100%   |

Aurreko bi puntu kontuan izanda, esan dezakegu inkestan parte hartu dutenak izan direla 1.ziklokoak batez ere eta neskak eta mutilak, nahiz eta neska gehiagok erantzun duten.

## 2. GAIARI BURUZKO GALDERAK

### *ZE ARLO GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN?*

Zer arlo gustatzen zaizu gehien?



Jendearen %33-k Gorputz Hezkuntza gehien gustatzen zaiela adierazi dute. Hortik aurrera, beste %15-k Biologia eta Geologia haien arlorik gustukoena dela adierazi dute. Ondoren, %12k gutxi gora behera Plastika arloa hautatu dute. Honekin jarraituz, %9-k Matematikak aukeratu dituzte. Jarraian, Geografia eta Historia eta Gaztelania nahiago dutenek %7 gutxi gora behera dira.

Ikasleen %6 gutxi gora behera Teknologia hautatu dute. Beste arlo bat gehien gustatzen zaiela adierazi dutenek %5 dira, eta azkenik %2-k gutxi gora behera, Musika eta Ingelesa nahiago dute.


Beraz, esan dezakegu ikasleen zati handienak, Gorputz Hezkuntza nahiago duela beste arlo batzuk baino, eta Biologia eta Plastika ere nahiko gogokoak direla.

| xi                     | fi         | hi          |
|------------------------|------------|-------------|
| Gorputz Hezkuntza      | 40         | 33,33%      |
| Biologia eta geologia  | 18         | 15%         |
| Matematika             | 11         | 9,16%       |
| Plastika               | 14         | 11,66%      |
| Musika                 | 2          | 1,66%       |
| Teknologia             | 7          | 5,83%       |
| Beste bat              | 6          | 5%          |
| Erligio                | 1          | 0,83%       |
| Euskera                | 1          | 0,83%       |
| Fisika eta kimika      | 1          | 0,83%       |
| Gaztelania             | 8          | 6,66%       |
| Geografia eta historia | 8          | 6,66%       |
| Ingelesa               | 2          | 1,66%       |
| Tutoretza              | 1          | 0,83%       |
| <b>Guztira</b>         | <b>120</b> | <b>100%</b> |



## ETA GUTXIEN?

Zer arlo gustatzen zaizu gutxien?




Grafiko honetan ikusi ahal dugunez, Fisika eta Kimika arloa da ikasleei gutxien gustatzen zaiena, hobeto esanda, %22 baino gehiagok, Fisika eta Kimika arloa gorroto dute. Bigarrenik, Euskara %20 baino gutxiagok ez dute gustuko eta aldiz Matematika arloa, ez zaie %16-ri gustatzen. Beste arlo batzuk ere badaude, baina guztiak oso antzekoak direnez, ez ditugu datuak idatzi.

| xi                | fi         | hi             |
|-------------------|------------|----------------|
| Fisika eta kimika | 26         | 22,22%         |
| Balio etikoak     | 4          | 3,42%          |
| Beste bat         | 4          | 3,42%          |
| Ekonomia          | 1          | 0,85%          |
| Biologia eta geol | 9          | 7,69%          |
| Gaztelania        | 4          | 3,42%          |
| Geografia eta his | 6          | 5,13%          |
| Ingelesa          | 11         | 9,40%          |
| Euskara           | 22         | 18,80%         |
| Matematika        | 19         | 16,24%         |
| Musika            | 6          | 5,13%          |
| Teknologia        | 3          | 2,56%          |
| Plastika          | 1          | 0,85%          |
| Filosofia         | 1          | 0,85%          |
| <b>Guztira</b>    | <b>117</b> | <b>100,00%</b> |

## ZURE USTEZ ZERGATIK EZ ZAIZU GUSTATZEN?


### Zergatik ez zaizu gustatzen?



Grafikoan ikusi ahal denez, %28-k ez ditu ikasgai hauek gustuko irakaslearengatik, eta hortik oso hurbil, %26,5-ri ez zaizulako ondo ematen. Bestetik, gaia ez zaie interesgarria iruditzen %23-ri, eta %18-ri berriz, bereziki zaila dela iruditzen zaie.

| xi                                             | fi         | hi          |
|------------------------------------------------|------------|-------------|
| Bereziki zaila delako                          | 35         | 18,92%      |
| Ez zaizulako bereziki ondo ematen              | 49         | 26,48%      |
| Beste batzuk                                   | 4          | 2,16%       |
| Gaia bera ez zaizulako interesgarria iruditzen | 44         | 23,78%      |
| Irakaslearengatik                              | 53         | 28,64%      |
| <b>Guztira</b>                                 | <b>185</b> | <b>100%</b> |

### USTE DUZU ETORKIZUNEAN ARLO HAUEK BALIAGARRIAK IZANGO ZAIZKIZULA?





Erdia baino gehiagok dio ikasgai hauetako batzuk erabilgarriak izango zaizkiela etorkizun batean. %18-k berriz, uste du hauetako batzuk ez dutela ezertarako balio. Aldiz %14-k, arlo guztiak baliagarriak ikusten ditu eta %6-k gutxi gorabehera, uste du hauetako arlo guztiak ez direla baliagarriak izango.

| xi             | fi         | hi             |
|----------------|------------|----------------|
| Bai guztiak    | 17         | 14,29%         |
| Batzuk bai     | 73         | 61,34%         |
| Batzuk ez      | 22         | 18,49%         |
| Ez, bat ere ez | 7          | 5,88%          |
| <b>Guztira</b> | <b>119</b> | <b>100,00%</b> |

## GAI BAT ZAILAGOA BADA ZENBAT ORDU EMATEN DITUZU IKASTEN?

### Zenbat ordu ematen dituzu ikasten?




Grafika hauetan ikusi ahal den bezala, gehienek, %40 alegia, 2-3 ordu ikasten dute gai bat zailagoa denean, eta hortik behera, 1-2 ordu ikasten duten ikasleak ere daude, %39-rekin. Hemendik aurrera, 3-4 ordu ikasten duten ikasleak aurkitzen dira, %13-rekin, 4-5 ordu ikasten dutenak, %3 rekin eta azkenik 5 ordu edo gehiago ikasten duten ikasleak, %5-rekin.

Kaxa diagraman ikusten den bezala, erantzun gehienak (%75) 1-2 eta 2-3 ordu tartetean daude sakabanatuta. Beraz, esan daiteke nahiko homogeenak direla lortutako erantzunak.

## ZER GUSTATUKO LITZAIZUKE ETORKIZUNEAN IZATEA?


Zer ikasiko duzu etorkizunean?



| xi                      | fi         | hi            |
|-------------------------|------------|---------------|
| Anime telesaien marr... | 1          | 0,81          |
| Oraindik ez dakit       | 73         | 59,34         |
| Motokorridorea          | 1          | 0,81          |
| 3D Diseinatzailea       | 1          | 0,81          |
| Animadorea              | 1          | 0,81          |
| Agente inmobilia        | 1          | 0,81          |
| Arkitektoa              | 2          | 1,62          |
| Suhiltzailea            | 2          | 1,62          |
| Biologoa                | 3          | 2,43          |
| Soinu teknikoa          | 1          | 0,81          |
| Ingeniaria              | 3          | 2,43          |
| Zirujau Plastikoa       | 1          | 0,81          |
| App desarraoll..        | 1          | 0,81          |
| Astronomoa              | 2          | 1,62          |
| Dentista                | 1          | 0,81          |
| Crimonologoa            | 1          | 0,81          |
| Empresarioa             | 2          | 1,62          |
| Diseinatzaile Gr        | 2          | 1,62          |
| Politikoa               | 1          | 0,81          |
| Ertzaina                | 3          | 2,43          |
| Filosofo Irakasle       | 1          | 0,81          |
| Ingeniero               | 2          | 1,62          |
| Futbo Entrenat          | 1          | 0,81          |
| Psicologoa              | 4          | 3,25          |
| Albaitaria              | 2          | 1,62          |
| Irakaslea               | 3          | 2,43          |
| Itzultzailea            | 1          | 0,81          |
| Kazetaria               | 1          | 0,81          |
| Medikua                 | 4          | 3,25          |
| Notarioa                | 1          | 0,81          |
| Militarra               | 1          | 0,81          |
| <b>Guztira</b>          | <b>124</b> | <b>100,67</b> |

Grafikak adierazten duen bezala, ikasle bakoitzak lan ezberdin bat egin nahi du etorkizunean. Baina %60k ez daki zer ikasi edo zer egin nahi duen etorkizunari begira. Hemendik aurrera, gehien errepikatzen direnen artean, medikua, irakaslea, psikologoa, ertzaina, biologoa edo ingeniaria dira.

## Lan - genero desberdintasunak orokorrean



Gehien erabaki izan diren lanpostuen artean, neska eta mutil bakoitzak zer aukeratu duen aztertu dugu, bi generoen arteko pentsaera desberdintasun orokorrak ikertzeko.

Hasteko, oso esanguratsua da, Medikuntzan aukeratu duten 4-pertsonengandik, horietako 3 emakumeak direla, beraz nesken artean interes handiagoa ikus daiteke medikuntzara begira mutilen artean baino.


Hortik behera medikuntzan bezala berdina gertatu den beste hainbat arlo daude, Biologia eta Diseinu grafikoan bezala, non ikus dezakegun moduan, orokorrean interes handiago dute emakumeek. Albaitaritzan berriz, aukeratu duten bi pertsonengandik, biak neskak izan dira, arlo bakarra izanik non neskek bakarrik aukeratu duten.

Bestetik, badaude beste hainbat lan-arlo parekatuta daudenak aukeratzeko orduan, Arkitektura, Ingeniaritza, Psikologia eta Astronomia bezala, neska eta mutil banak aukeratu dituztenak.

Eta azkenik, gelditzen diren lanpostuetan, gizonek daukate gehiengo osoa, beraz esan dezakegu, orokorrean edo inkesta bete dutenen artean, ez dagoela interesik nesken artean ertzaina, suhiltzailea eta enpresaria izateko.

*BESTE BAT AUKERATU BADUZU, ZER IKASIKO DUZU HORI IZATEKO, HAU DA, BA AL DAKIZU ZER IKASI BEHAR DEN NAHI DUZUNA IZATEKO?*

Beste bat aukeratu baldin baduzu, zer ikasiko zenuke?




| xi                 | fi        | hi          |
|--------------------|-----------|-------------|
| ADE eta ingenieria | 1         | 10%         |
| Arkitektura        | 1         | 10%         |
| Biologia           | 1         | 10%         |
| Zientziak          | 1         | 10%         |
| diseño gráfico     | 1         | 10%         |
| Magisteritza       | 1         | 10%         |
| Medikuntza         | 2         | 20%         |
| Palentologia       | 1         | 10%         |
| zuzenbidea         | 1         | 10%         |
| <b>Guztira</b>     | <b>10</b> | <b>100%</b> |

Grafikoan ikusi ahal dugun bezala, nahi dituzten lanak lortzeko, gehienak medikuntza aukeratu du. Hau da, pertsona gehienek, %20-k hain zuzen, medikuntza ikasgaia aukeratuko dute ikasteko. Eta hemendik behera, beste ikaslek, %10ekin, beste ikasgai batzuk aukeratuko dituzte etorkizunean ikasi ahal izateko lan bide aukeratutakoen artean.

## ZURE HELBURUAK LORTUKO DITUZU?

hi




Sektore grafiko eta taulak adierazten duten bezala, ikasle gehienek, haien helburuak lortuko dituztela uste dute. Beste ikasle batzuk aldiz, ezetz, haien helburuak ez dituztela lortuko azaldu dute grafikoan. Eta azkenik, %25-k gutxi gorabehera, ez dakite haien helburuak lortuko dituzten.

| xi       | fi  | hi     |
|----------|-----|--------|
| Bai      | 66  | 65,34% |
| Ez       | 9   | 8,91%  |
| Ez dakit | 26  | 25,74% |
| Guztira  | 101 | 100%   |



### IKASKETEI DAGOKIENEZ, PRESIORIK SENTITZEN AHAL DUZU?

fi




Erdiak baino gehiagok, %60-k, ez dutela inolako presiorik sentitzen adierazi dute, eta %38-k alegia, ikasketei dagokienez presioa nabaritzen dutela aitortu dute. Beraz, gehienek presiorik sentitu ez arren, ba dago presioa sentitzen duen multzo handi bat, %40 osatzen duena.

| xi      | fi  | hi      |
|---------|-----|---------|
| Bai     | 45  | 38,46%  |
| Ez      | 72  | 61,54%  |
| Guztira | 117 | 100,00% |

## BAI AUKERATU BALDIN BADUZU ZERGATIK DA?

### Zergatik da?



Jende gehienak esaten du presioa sentitzen duela gurasoengandik edo familiarengandik %46,53-rekin, moda osatuz. Familian arlo horretarako langileak daudelako presioa sentitzen dutela %20,93-k adierazi du. Arlo horretan diru gehiago irabazten dutelako %18,60 dira, aldiz %13,95-k familia horren beharra duelako dela adierazten du.

| xi                                                      | fi        | hi          |
|---------------------------------------------------------|-----------|-------------|
| Arlo honetan diru gehiago iraba                         | 8         | 18,60%      |
| Familiak horren beharra duelako                         | 6         | 13,95%      |
| Familian arlo horretako beste hainbat langile daudelako | 9         | 20,93%      |
| Gurasoek, familiak presionatzen nautelako               | 20        | 46,53%      |
| <b>Guztira</b>                                          | <b>43</b> | <b>100%</b> |

# ONDORIOAK

Inkestaren emaitzak ikusi, eta ebaluatuta, ondorio batzuetara iritsi gara. Hasteko, esanguratsua da institutuko 1. zikloko ikasle gehienek ez dakitela nola edo zertaz amaitu nahi duten. Eta dakitenen artean, ikusi ahal izan dugu, lan gustukoenak, biologoak, ertzainak, psikologoak eta medikuak direla beste lan postu askoren artean. Bestetik, arlo gustuko-bakoitzeko, neska eta mutilen arteko interesak konparatu ditugu, eta ondorio hauetara iritsi gara: Neskek Medikuntzan, Albaitaritzan, Psikologian eta Diseinu Grafikoan Interes nabarmena dutela, mutil gehienek ez bezala, eta bestetik hainbat lanpostutan parekatuta egonda, Arkitektura, Ingeniaritza eta Astronomia ditugu. Mutilen interesak aztertuta, orokorrean, lan fisikoak buruan dituztela ohartu gara, horien artean suhiltzaileak, ertzainak eta bestetik enpresariak. Hortaz bi generoen arteko interes desberdintasun handia nabaritu dugu, baita asmo handiko lanak direla ere, hau da lan "onak".

Ikasketei begiratzuz, herenak, presioa sufritzen duela ohartu gara ikasketak aukeratzeko orduan, eta honen artean lau kausa desberdin identifikatu ditugu, horien artean, gurasoen edo familiarengandik etorritako presioa, familian arlo berean lan egiten duten beste hainbat pertsona daudelako, familiak horren beharra duelako eta azkena, arlo horretan diru gehiago irabazten delako. Gainera, ikasleen %14-k bakarrik, Ikasgai guztiak baliagarriak direla uste du, eta hortik aurrera, ikasgaien funtzionamendua guztiz baliagarria ez direla edo zuzenean bat ere ez baliagarriak ez direla uste dutenak daude, %86 osatuz.

Beste alde batetik, arlo gustukoenak Gorputz Hezkuntza, Bio-Geo, Plastika eta Matematika direla ohartu gara, eta alderantziz, gutxien gustatzen zaizkienak, Fis-kim, Euskera eta Mate berriro ere, izan ere badago matematika asko gustatzen zaion jendea, baita hau gorroto duena ere. Bestalde, konturatu gara ez gustatzearen kausak oso parekatuak direla, guztitik egonez, eta gainera, etorkizunean zer izan nahi duten dakitenen artean, orokorrean zer ikasi behar duten badakite, beraz, informatuta daudela esan daiteke. Hala ere, gogoratu behar da ikasle gehienak ez dakiela zertaz lan egin nahi duen.

Amaitzeko, positibotasun falta pixka bat aurkitu dugu, izan ere, %35-k, ez daki edo ez du uste bere helburuak lortuko dituenik.

# HOBKUNTZAK

Orokorrean, uste dugu guk nahi genuena lortu dugula; hau da, jendearen etorkizunari buruz informazioa biltzea, eta grafiko eta tauletan adieraztea. Baina prozesu luze honen erdian, arazo batzuk izan ditugu eta uste dugu arazo horien konponbidea aurkitu dugula. Adibidez, datuak zenbatzerakoan, taulan jartzeko orduan, banan banan zenbatzen genituen eta denbora luzea ematen genuen hori egiten. Gero, irtenbidea aurkitu genuen Excel programari esker.

Ondoren, grafikoak egiterako orduan, beste arazo bat eduki genuen; grafikoak bi aldiz egin behar izan genituelako, eta hori egiten, denbora luze iraun genuen. Zergatik berriro egin behar izan genituen? Taulako datuak ez genituelako ondo hartu eta informazio gehiegi agertzen zelako grafikoan.

Beste arazo handi bat, proiektuaren hasieran eduki genuen. Bidalitako inkestan, ikasle gutxik, behar ez ziren gauzak idatzi zituzten. Hau da, galdera batzuetan, haiek nahi zutena idatzi ahal zuten, esate baterako, nagusiak zirenean zer izan nahi zuten idatzi behar zutenean. Eta galdera horietan, ikasle batzuk, gauza txarrak idazten zituzten eta horren ondorioz, erantzun asko ezabatu behar izan genituen.